

**Nafarroako Unibertsitate publikoa (NUP)/Universidad
Pública de Navarra (UPNA)**



Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Formakuntzarako Unibertsitate Masterra

**GEOLOGIAREN IKASKUNTZA
ESANGURATSUA
-AIAKO HARRIETARA LANDA IRTEERA-**

Master Amaierako Lana 2012-2013

**Egilea: Ainhoa Bengoa Salutregi
Tutorea: Arantza Guruceaga Zubillaga**

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA	2
2. ERREFERENTZIAZKO MARKOA TEORIKOAK	3
2.1. Hezkuntza marko teorikoak.....	3
2.1.1. Ikaskuntza esanguratsua	3
2.1.2. Ikaskuntza kooperatiboa	6
2.1.3. Problemetan oinarritutako ikaskuntza (PBL).....	6
2.2. Zientzia geologikoaren markoa teorikoa	7
2.2.1. Uniformismo eta Aktualismoaren Printzipioa	7
2.2.3. Plaken tektonikaren teoria.....	7
2.3. Landa irteeren marko teorikoa.....	8
2.3.1. Landa irteeren ezaugarriak	8
2.3.2. Landa irteera mota ezberdinak.....	8
2.3.3. Landa irteeren inguruan sortzen diren akatsak	9
2.3.4. Landa irteeraren metodologia eta ikaskuntza	9
3. ERREFERENTZIAZKO EDUKIAK	10
3.1. Nafarroako Curriculuma.....	10
3.2. Oinarrizko kontzeptu mapa	12
3.3. Gowinen V-a.....	13
4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	14
4.1. Proposamen didaktikoaren prestakuntza.....	14
4.1.1. Ikasleen aurrezagutza	14
4.2. Segida didaktikoaren faseak.....	15
4.2.1. Irteeraren aurre prestakuntza	16
4.3. Landa irteera	18
4.4. Ebaluazioa	20
5. ONDORIOAK	21
6. BIBLIOGRAFIA	23
7. ERANSKINAK	24

1. HITZAURREA:

Geologia, luraren barneko egitura eta estruktura eta materialak lantzen dituen zientzia da, honetaz gain, denboran zehar eboluzionatzen duten prozesu geologikoen azterketa egiten duen zientzia ere bada.

Geologiaren ezagutzak eta ikasketak gizakiari lagungarri izan zaio egunekotasunean. Izan ere, zientzia honen ikasketaren ondorioz, luraren parte hartzen duten faktore ezberdinen ezagutza eman baita. Hala nola, arrisku naturalen ezagutza (lur jausiak, lurrikarak, uholdeak...), baliabide naturalen ustiapena, gaur egun guztion ahotan dagoen klima aldaketa ezagutzeko. Izan ere iraganeko geologiaren ezagutzak gaur egungo faktore ezberdinen eboluzioa aztertzeko balio baitu. Honegatik geologiaren ikasketa oso garrantzitsua izan da gizadiarentzat.

Aurrekari moduan, landa irteeren defentsan (Pedrinaci, 2012; García de la Torre, 1991; Del Carmen y Pedrinaci, 1997; Toro y Morcillo, 2011) hurrengo babesten da. Edukin kontzeptualen lanketa burutzea errazten du (failak, diskordantziak, laginak hartzeko teknikak, mapen eta ipar-orratzaren erabilera, arazoen planteamendua, hipotesien formulazioa...) era berean, zientziarekiko jarrearen eta balioen garapena ematen da eta ingurumenaren defentsa edo talde lana bultzatzen da. Bestalde Brusiren esanetan, nahiz eta laborategiko praktika batzuk, eta kasu batzuetan oso emaitza honekin, errealitateko zati txikiak erakutsi (arroken sailkapena, fosilak, maketak edota modeloak), naturak eskaintzen dizkigun aukerak aberatsagoak, anitzagoak eta konplexuagoak dira, modelaketa aukerak guztiz gaindituz. Alabaina, klasetik irteten ez denean, ikasleak objektu geologikoak imajinatu egin behar ditu (tolesak, failak, zamalkadurak...) errealitatea "maltzurkeriaz" deformatuz (Paschoale, 1988). Beraz, nozio horiek aukera gutxi edukiko dituzte ingurune naturalaren interpretazioan aplikatzeko. Ondorioz zaila da geologiaren ikasketa landa irteerarik gabe ulertzea. Izan ere, geologiaren ikaskuntzan oso garrantzizkoak izan dira landa irteerak (García de la Torre eta besteak, 1993).

Hortaz, master amaierako lan (MAL) honen helburua, landa irteeren erabilpenean oinarrituz, geologiako edukiak era esanguratsuan ikastea izango da. Honexegatik aurkezten da honako proposamen didaktikoa lehenengo batxilergoko biologia eta geologia irakasgaiarentzat. Materia honen ikaskuntza era esanguratsuan eman dadin filosofia konstruktibistan oinarritutako metodologia izango da lan honen oinarria.

Lan honen abiapuntua Berako Toki Ona Institutuan 1go batxilergoko biologia eta geologiako 16 ikasleei eginiko galdetegia izango da. Galdetegiaren erreferentzia, goian aipatutako autore ezberdinek esandakoa izan da. Alde batetik, ikasleek landa irteerekiko duten ikuspuntua ezagutzeko egin da galdetegia, eta bestalde, ikasleak bizi diren inguruko geologiaz duten aurre

ezagutza mailaren berri edukitzeko egin da. Izan ere, landa irteera bat egiterako orduan ikasleek honekiko duten aurre ezagutza mailaren berri edukitzea oso garrantzitsua baita.

Ikastetxeetan geologiaren ikasketa era zabal eta abstraktu batean ematen da orokorrean, oso zaila baita ikasle batentzat milioika urteak zenbat urte suposatzen duten barneratzea edota arroka baten eraketa ulertzea. Ikaslearentzat geologian erabiltzen diren kontzeptu ezberdinen ulermena hobetzearen nahiarekin proposatzen da lan hau, izan ere ikasleek fenomeno, arroka baliabide naturalen ustiaketa edota failak beraien begiz ikusi eta ukitzen dituztenean ulergarriago bihurtzen baitzaie ikasitakoa.

Guzti honengatik MAL honetarako galdera hau erantzutea proposatuko nuke:

Nola eman daiteke geologian ikaskuntza esanguratsua Aiako Harrietara landa irteeraren bitartez?

2. ERREFERENTZIAZKO MARKOA TEORIKOAK:

2.1. Hezkuntza marko teorikoak:

2.1.1. Ikaskuntza esanguratsua:

Irakaskuntzan aritzeko ez da soilik zientzia espezifikokoaren ezagutzak kontutan hartu behar, hau bezain garrantzitsuak baitira ikaslearen ikaskuntza prozesuaren inguruko jakintzak. Hau da, ikasleak nola ikasten duen ere jakin behar da. Honetarako, teoria konstruktibistetan oinarrituko da lan hau. Abiaturu gisa esan dezakegu ikusmolde honen arabera ikas-prozesu oro norbanakoak egiten duen eraikitze-prozesu baten ondorioa dela, eta prozesu hori ikasleak lehenago dituen ezagutzetan nolabait oinarritzen dela. Beraz, norbanakoak ikaskizun oro betetzeko, haren parte-hartze aktiboa behar da.

Giza konstruktibismoan oinarritutako “Ikaskuntza Esanguratsua” proposatzen duen teoria izan da, eskolako ikaskuntzaren aldetik dauden teoria psikopedagogikoen artean onarpen handia lortu duena, eta azken urteetan eragin handia eduki duelarik. Esan dezakegu Konstruktibismoa gaur egungo hezkuntza teoriek duten marko filosofiko orokor onartua dela. Izan ere, bere iturriak zenbait ikuspegi eta egilerengandik datoz:

Alde batetik, **Vigotskyk** eredu soziokulturalaz hitz egiten du. Hor azaltzen da, zelan ume baten ezagutzak bere testuinguruaren arabera eraikiko den, hau da, testuinguru horretako kulturak eta egoera sozialak arautuko du umearen jakintzak. horrez gain, Vigotskyrentzat hizkuntzak ere garrantzia

handia du. Bere ustetan, ikaskuntzarik eraginkorrena Garapen Hurbileko eremuan ematen da.

Bestetik, **Piageten** teoria kognitibo-genetikoa azaltzen da jatorri organikoa, biologikoa eta genetikoa duena. Teoria honen arabera, gizaki bakoitzak erritmo desberdinetan garatzen gara. Bere ustez, ezagutzak estruktura kognitiboetan aldaketak ematen direnean lortzen dira.

Bestalde, **Ausubel** ikaskuntza esanguratsuen teoria bultzatu zuen eta ez soilik honen alde kognitiboa baizik eta honen alde emozionalak ere kontutan eduki zituen. Teoria hau, gizakion ikaste prozesuetan oinarritzen da eta ikaste prozesu hori berezkoa da, hau da, norbanakoak jadanik duen aurre-egitura kognitibora informazio berria asimilatzean eta hauek ulertzean datza. Ondorioz, era esanguratsuan ikasteko, kontzeptu berriak era ez-literal eta ez-arbitrario batean aurreko ezagutzekin erlazionatzeko nahia eduki behar da. Kontuan hartu gabe informazioaren potentzial esanguratsua, indibiduoak era literal eta arbitrarioan memorizatuko balu, ikaskuntza soilik mekanikoa izango litzateke.

Gaur egungo hezkuntzaren ikerketaren idazle eta ekoizle garrantzitsua da **Novak** (Novak & Gowin, 1984). Honek, Ausubelen teoriari jarraituz, giza kutsua eman zion ikaskuntza esanguratsuari. Izan ere, bere ustetan, ikaskuntzaren esperientzia afektibo positiboa intelektualki eraikitzailea da, ikasten duen pertsonak ulertzeko jarrera duenean. Novak-ek ere frogatu zuen, kontzeptuen eskuratze goiztiarrak ikaskuntzan eragina duela. Eta ondorioz, ondo antolatutako ezagutza egiturak ikaskuntza eraginkorragoa sustatzen dutela. Modu honetan, Novak-ek ezberdintzen du, ikasketa sinplea, non kontzeptuen integrazioa ahalbide ez duen ikaskuntza linealean oinarritzen den eta ikaskuntza esanguratsua, zeinak kontzeptuen integrazioa baimentzen duen. Novak-ek (1987) ikaskuntza esanguratsuen kontzeptua, bere hezkuntzaren teoriaren erdigunean kokatu zuen kontzeptu oso garrantzitsu bezala.

Ausubel eta Novak-en esanetan, ikaskuntza esanguratsua lortzeko, baldintza ezberdinak eduki behar dira kontutan:

- Material instrukzionala kontzeptualki gardena eta esanguratsua izan behar da kontzeptu inklusiboen arteko harremanak argituko dituen.
- Ikasten denaren aldetik egitura kognitiboa egokia izan behar da.
- Ikasleek norberaren ikaste prozesuaren aldetik jarrera positibo eta aktiboa eduki beharko dute.

Baldintza hauek errazteko Ikaskuntza Esanguratsuen teoriak bi tresna metakognitibo ezberdinen erabilera sustatzen ditu, hauek baitira teoria honetatik ondorioztatu diren tresnak. Hala nola Gowin-en V-a eta kontzeptu

mapak. Azken honetan oinarrituz akats kontzeptualek esanahi berritzaile bat jasotzen dute. Novak-ek esaten duen bezala kontzeptu mapak ezagutzaren proposizioen hierarkia agerian uzten dutenez eta hierarkia hori logikoa ez denean akatsen iturri direnez, kontzeptu mapak argi eta garbi azalera-tuko ditu ikaslearen proposizio akastunak.

Kontzeptu mapen estrategiaren garapena ikaskuntza esanguratsuen inguruko ikerketetan zebilela Novak-ek burutu zuen bere laguntzaileekin batera. Mapa kontzeptualek antolatutako informazio ugari eskaintzen digute, ikasketaren ebaluazioa baimentzen duen sistema bat ere delarik, esan dugun bezala akats kontzeptualen berri ematen baitigute. Kontzeptu mapak, asimilazio teoriaren barne bitarteko gisa erabiltzen dira kontzeptuen deskribapen eta komunikazioa emateko. Kontzeptu mapak asimilazio teoriaren tresna metodologiko esanguratsuenak dira ikaslearen aurre-jakintza maila ezagutzeko. Horrela jakingo dugu ezagutza kognitiboak ondo finkatuak dauden ala ez. Azkenik, kontzeptu mapak metakogniziorako tresna izan daitezke eta ikasten-ikasteko (Novak y Gowin, 1984, 1988, 1996).

Gowin-en V diagrama gertakari zientifiko baten azterketa epistemologikoan oinarritzen da. Metodo malgu eta sinple honek, bai ikasle zein irakasleei laguntzen die ezagutzaren egitura ulertzen. "V-aren bitartez, ikasten ari diren gertakariei zentzua emateko zeintzuk izango diren beharrezko kontzeptuak argituko ditu. Ikaskuntza hobetzen du, bai laborategian, landan edo klasean" (Novak & Gowin, 1984). V-ak lau arlo biltzen ditu zeinak, ezagutzaren eraikuntzaren prozesuari esanahia ematen dion. Hauek dira lau arloak: galdera nagusia, aspektu kontzeptualak, esku-hartzea: gertakari eta objektuak eta aspektu metodologikoak. Tresna honen bitartez, zientziaren izaera konplexua era erraz batean adierazi daiteke, V-aren elementu guztien erlazioen bitartez ezagutzaren bilakaeraren oinarritzko izaera ezartzen dutelarik.

Horrela izanda, zera eskatzen du ikuspegi konstruktibistak: ikaste-prozesua ingurunearekin elkarreaginean garatzea, buru-jarduera zorrotz eta aipagarri baten ondorioz. Era berean, ikaslearen aurretiazko ideietatik abiatzea eskatzen du, beraien gainean ezaguera berriak eraikitze eta gaitasunak garatzeko. Eta amaitzeko, ikasitakoak esanguratsua eta beste esparru batzuetan aplikagarria izan behar du. Eta prozesu konplexu honetan guztiz lagungarriak izango dira aurkeztu diren V-aren eta kontzeptu mapen metakogniziorako tresnak.

Master Amaierako Lan honetan, hezkuntzaren berrikuntzarako eta zehazki geologiaren hobekuntzarako proposamen bat aurkeztu da. Lehenengo batxilergoko ikasleek, era esanguratsu batean geologiaren ikaskuntza garatzea delarik helburua. Geologia modu integral eta egoki batean ulertzeko, ezin

bestekoa izango da ikasleek jakintza berriak eraikitzeko gaitasuna edukitzea eta hau ikaskuntza esanguratsuaren bitartez lortuko da.

2.1.2. Ikaskuntza kooperatiboa:

Ikaskuntza eta lan zientifikoan oso garrantzitsua da taldekako lana bermatzea. Ikaskuntzan aurrera pausuak lortzea ia ezinezkoa da taldeko beste kideekin lan egiten ikasi gabe. Hain zuzen, era kooperatiboan lan egiten soilik aprobetxatu bai daitezke taldeko kide bakoitzak eskaintzen duen trebetasun eta ezagutza. Ikaskuntza kooperatiboaren metodologia ikasleak talde txikitan lan egitea da. Hala ere, kontuan eduki behar diren beste oinarri hauek ere aztertu behar dira (Johnson, Jhonson y Holubec, 1999). Beharrezkoa da landu beharrekoaren planifikazio on bat egitea, taldekideen artean elkarmenpekotasun positibo bat egotea, gertuko interakzio zuzena izatea, taldeko interakziorako beharrezkoak diren gizarterako kompetentzietan hezteak, ikasleek era aktiboan parte hartzea, landutako ekintzaren jarraipena egitea eta ebaluazio indibiduala eta taldearen ebaluazioa egitea.

Puzzlearen teknika lan kooperatiboa emateko tresna egokia da. Horregatik lan honetan erabilia izango da.

2.1.3. Problemetan oinarritutako ikaskuntza (PBL):

Problemetan oinarritutako ikaskuntza (Problem-based learning), klaseetan klase emateko era tradizionala guztiz apurtzen du. Izan ere, ikaskuntza eredu mekaniko eta memoristikoa alde batera utziz, metodologia hau tresna egokia da gaitasun ezberdineko eta ikasteko estilo ezberdinak dituzte ikasle taldeekin lan egiteko aukera ematen baitu. Ikasleei lehenengo azalpenak eman eta ostean ariketen proposamena edo problemena da ikaskuntza tradizionalak egiten duena. Metodologia hau erabiliz kontrako prozedura erabiliko dugu. Ikasleari problema bat azalduko zaio, ikaskuntzarako beharrak zehazten dira, informazioa bilatzen da eta bukatzeko problemaren ebazpena lortzen da.

Barrows-ek (1986) honela definitzen du PBL-a: ikaskuntza metodo bat da non, abiapuntu gisa arazoak erabiltzen diren ezagutza eta kontzeptu berriak barnerratzeko. Metodologia honen oinarritzko ezaugarriak hauek dira:

- Ikaskuntza ikasle zentratuta dago.
- Ikaskuntza ikasle talde txikietan sortzen da.
- Irakasleak laguntzaile eta orientatzaile papera edukiko du.
- Arazoak antolakuntza eta ikaskuntzaren estimuluaren fokuak izango dira.
- Informazio berria autogidatutako ikaskuntzaren bitartez bereganatzen da.

2.2. Zientzia geologikoaren markoa teorikoa:

2.2.1. Uniformismo eta Aktualismoaren Printzipioa:

XVIII-XIX mendean jaiotako Geologiaren printzipio orokorrak dira honako hauek. Uniformismoak, lege fisikoak unibertsalak eta beti berdinak izan direla defendatzen du. Hau da, lege naturalak konstanteak eta uniformeak direla denboran eta espazioan. Eta aktualismoak defendatzen du, gaur egungo prozesu geologikoak iraganekoak berdinak direla. Eta honekin ondorioztatzen da gaur egungo prozesu geologikoak aztertuz, iraganekoak ezagutu daitezkeela. Izan ere, Filosofia honen arabera, oraina iraganaren gakoa da. Printzipio hauen sorrera James Hutton eta Charles Lyell-li egokitzen zaie eta geologiaren aitak kontsideratuak daude. Hala ere, epistemologikoki nahiko arazo sortu duten printzipioak dira.

2.2.3. Plaken tektonikaren teoria:

1960ko hamarkadan eta 1970ko hamarkadaren lehendabiziko urteetan geologoek pentsamoldea guztiz aldaraziko zuen plaka-tektonika teoriaren oinarriak finkatu ziren. Aurretik, nahiz eta kontinenteen mugikortasunari buruzko ideiak mende osoan zehar ikertzaileen artean ahoz aho ibili, oro har, Lurra gorputz zurruntzat eta kontinenteak gorputz finkotzat hartzen ziren.

1912. urtean, Alfred Wegener meteorologo alemanak jatorri ezberdineko zenbait argigarri bildu eta Kontinenteen Jitoa izenez ezagutzen den teoria modernoaren sortzaile-titulua berezia irabazi zuen. 1970. Hamarkadan, kontinenteen jitoak onarpen orokorra eduki zuen eta plaka-tektonikaren oinarritzko zutabeak izango zirenak definitu ziren.

Plaken tektonikaren teoria honek hau defendatzen du: lurrazala material zurrunezko plaka litosferikoetan zatituta dago eta plaka hauek astenosferaren gainean desplazatzen dira. Teoria horrek ere plaken mugimendua, norabidea eta interakzioak azaltzen ditu. Plaken mugimenduaren eragilea mantuaren konbexio korranteak dira.

Printzipio honek azaltzen du Lurra eboluzio konstante batean dagoela. Eboluzio hau kanpo eta barne faktore geodinamikoek ondorioa delarik. Honexegatik Lurra egunez egun aldatzen ari dela baieztatzen du printzipio honek. Honen harira, Tuzor Wilsonek 1966. urtean plaken eboluzioa azaltzeko nahiarekin modelo bat sortu zuen, gaur egun Wilsonen zikloaz ezagutzen dena. Ziklo hau, Lurraren dinamikaren gaur egungo ezagutzen sintesia da. Ziklo honen ideia nagusia agregazio eta desgregazio kontinentalak historian zehar ziklikoak izan dela da.

2.3. Landa irteeren marko teorikoa:

2.3.1. Landa irteeren ezaugarriak:

Mendi irteerak zientzien ikaskuntzaren helburuak lortzeko kapazitate handia duten tresnak dira hau betetzekotan (Revelo, 2011):

- Leku erakargarrietan ematen dira.
- Ikasten ari den fenomeno naturalarekin kontaktu zuzena dago, ikaslearen inbestigazio premia handituz.
- Ikaslearen hezkuntza maila, edota maila soziala zein maila pertsonala garatzeko aukera eskaintzen dute.
- Ezagutza suspertzen du, trebetasun eta abileziak. Hau da, baliabide naturalen inguruko pertzepzio eta estimua handitzen du.

Brusi-ren (1992) esanetan, mendi irteerek ez dute zertan helburu izan behar, baizik eta helburu pedagogikoak lortzeko tresna baizik. Ingurune naturalean objektu, fenomeno eta benetako arazoen azterketak egiteak, oinarritzko ikaskuntza-jarduera, ezagutza, trebetasuna eta jarreraren arteko elkarrekintzaren goreneko maila lortuko du.

2.3.2. Landa irteera mota ezberdinak:

Hezkuntza eremuko landa irteerak metodologiaren araberrako bereizketa baten bitartez sailkatzen dira (Brusi, 1992; Pedrinaci, 1994):

- *Irteera Tradizionala*: mota honetako irteerak mendian hitzaldi bat ematearen antzerakoa izango litzateke, mota honetakoak “cicerone irakaslea” ere deituak direlarik. Kasu honetan irakasleak ibilbidea hautatzen du eta ikasleei leku bakoitzean zer aurkitu dezaketen eta hau nola interpretatu azaltzen die. Irakaslea da, oraindik ere ikasleak planteatu ez duen galderaren erantzunaren sortzailea. Irakaslearen kezka nagusia ezagutzaren trasmizioa era ordenatuan izatea izango da. Ikaslearen egin beharra adi egotea eta notak hartzea izango delarik. *Trasmizio-harrera* modelo bat da, non Geologiaren ikaskuntzarako ez den oso aproposa, izan ere ikasleak ez du aukerarik bere kabuz aztertzeke edota harremanak ezartzeko. Gaur egun gehien erabiltzen diren irteera motak direlarik.
- *Aurkikuntza autonomoa edo ez gidatua*: mota hauetako mendi irteerak ikaslea bere kabuz usten dituztenak dira. Ikaskuntza prozesua inductibo eta autonomoa delarik. Gaur egun irteera hauek ez dira oso erabiliak eta jarraitzaile oso gutxi dituzte.

- *Irakasleak gidatutako behaketa:* Irteera itxia eta gidatutakoa izango da hau. Irakasleak behaketa gida bat edukiko du hau jarraitzeko. Gida hau irakasleak eginikoa izango da eta ikasleak non zer eta nola egin behar duen gida izango da. Irakasleak era aktibo batean lan egiteko aukera ematen du landa irteera mota honek. Gaur egun gehien erabiltzen den irteera mota da honakoa eta aurreko bien artean aurkitzen dena da hain zuzen.
- *Problemen ebazpena:* Kasu honetan irakasleak hasierako arazoa planteatzen du, ingurua hautatzen du eta sarrera ere. Hemendik aurrera ikasleak hautatuko du zer datu jaso, non egin, nola egin. Ikaslea aktiboa eta autonomoa izango da. Bera izango da arazoa aztertuko duena, ikasitako kontzeptuen hausnarketa egin beharko du, bere mugak ezagutu, laguntza eskatu behar badu eskatzea, eta ondorio batzuk aterako dituena. Irakasleak laguntza eskainiko die ikasleei eta aurrerapausoak baloratu beharko ditu.

Azken irteera mota hau izango da lan honetarako proposatuko den mendi irteera.

2.3.3. Landa irteeren inguruan sortzen diren akatsak:

Landako irteeretan sortzen diren akats nagusienak aztertuz, landa irteera hobeto zehaztu daiteke (Pedrinaci, 2012). Hauek dira akats nagusiak:

- Helburu gehiegi planifikatu.
- Irteerarekin erlazionatutako aktibitatea moztea irteeraren bitartean.
- Informazio gehiegi lantzea eta sortu ez diren galderen erantzuna ematea.
- Planteatutako arazoak erantzun bakarra eta erantzuna argi dagoela pentsaraztea.
- Irteera amaieran, planteatutako arazoei erantzuna ematea, hauek azalduko zituzten daturik aztertu gabe.

2.3.4. Landa irteeraren metodologia eta ikaskuntza:

Pace eta Tesi (2004) esanetan, landa irteerekiko ikasleek jarrera positiboa erakusten dute eta hauen ikaskuntza prozesua egokia izan dadin beharrezkoa dela eremu hauetan estrategia egokiak erabiltzea. Honetarako ongi zehaztuak egon behar dira: ibilbidearen eta geldi aldi bakoitzaren planifikazioa, irakaskuntza eta ikaskuntza estrategien eraikuntza, landa irteera programan ongi txertatua egotea eta ikasitakoaren ebaluazioa.

Bestalde, Pedrinaci eta besteak, 1994, landa irteera baten programazioa egokia izan dadin irizpide hauek bultzatzen dituzte:

- Landa irteerak Curriculumaren garapenean ondo txertatuak eta testuinguru egokia eduki behar dute.
- Irteeraren plangintzan, aurretik, bitartean eta landa irteeraren ostean egin beharreko jarduerak azaldu behar dira.
- Helburu asko egotea saihestu behar da. Landa irteerek gauza askotarako balio dute baina lana zentratuko duten helburuak aukeratu behar dira.
- Ikasleei arazo esanguratsu bat aurkezteak landa irteeraren antolatzaile bezala funtzionatuko du. Honela ikasleak landa irteeraren nondik norakoak eta burututako behaketak ulertuko ditu.
- Ikasleak era aktibo batean parte hartu behar du behaketa gida edo planteatutako arazoa konpontzeko erabilitako tresnen garapenean.
- Aktualismoa analisi metodo gisa erabili behar da, honela gaur eguneko prozesuak aztertuz iragana berreraikitzekeo kapazitatea edukiko dute.
- Behaketa geologikoetan saihestezina den deskribapen estatikoak ez emateko, beharrezkoa da interpretazio dinamikoak bultzatzea.
- Planteatutako problema batzuk irekiak ustea hobea da, lortu ez den informazio bat erabilita arazoa ixtea baino.
- Landutako zonaldearen historia geologikoa ezagutzea beti posible ez izan arren, erreferentziazko denbora erlatiboak aipatzea.
- Bereziki, sortutako ondorioak zaindu behar dira eta aurretik laborategian edo klasean landutakoarekin erlazioak ezarri.

3. ERREFERENTZIAZKO EDUKIAK:

3.1. Nafarroako Curriculum:

Nafarroako Hezkuntza sailak 25/2007 Foru Dekretuak , Batxilergoko lehenengo mailarako Geologia eta Biologia ikasgaiarentzako edukiak zehazten ditu. Proposamen didaktiko honetan Curriculumeko lantzen diren edukiak azpimarratuak azaltzen direnak dira:

1. Lurraren jatorria eta egitura.

–Lurraren barnealdea aztertzekeo metodoak. Metodo bakoitzarekin lortzen diren datuen interpretazioa.

– Lurraren barne egitura. Lurraren materialen osaera.

–Mineralak eta harriak. kristalen sorreraren azterketa esperimentala. Mineral petrogenetikoak.

–Ingurunea ikertzekeo teknologia berriei buruzko sarrera: informazio geografikoko sistemak.

– Landa lana: laginak bertatik bertara aztertzea.

–Laborategiko lana: *analisi fisikoak eta kimikoak; mikroskopio petrografikoa.*

2.Barneko geodinamika. Plaken tektonika.

–Litosferako plakak: *ezaugarriak eta mugak. Plaken ertzak: eraikitzaileak, eraldatzaileak eta suntsitzaileak. Lotutako fenomeno geologikoak.*

–Barneko beroaren kondukzioa eta konbektzioa eta horiek Lurraren barneko dinamikan duten eragina.

–Ozeano eta kontinenteen jatorria eta eboluzioa. Wilson-en zikloa. Plaken tektonikaren teoriaren alderdi bateratzaileak.

–Magmen sorrera eta eboluzioa. Harri magmatikoak. Magmatismoa eta plaken tektonika.

–Metamorfismoa. Harri metamorfikoak. Metamorfismo motak eta plaken tektonika.

–Harri magmatiko eta metamorfiko nagusiak ezagutzea. Harri igneo eta metamorfikoen erabilgarritasuna.

3.Kanpoko geodinamika eta Lurraren historia.

–Kanpoko geodinamikako prozesuak. sedimentazio inguruneak eta prozesuak.

–Harri sedimentarioak eta haien aplikazioak. Mota nagusiak ezagutzea.

–Harrien aldaketa eta meteorizazioa. Lurzoruaren sorrera. Haren iraupenaren garrantzia.

–Barneko eta kanpoko prozesu geologikoen arteko eraginak. Lur sistema: ikuspegi osoa.

–Mapa topografiko, ebakidura eta mapa geologiko sinpleen interpretazioa.

– Arrisku geologikoak. Iragartzea eta aurrea hartzea.

–Dataziorako eta Lurraren iragana berregiteko prozedurak. denbora geologikoa eta haren zatiketa. Zenbait fosil identifikatzea.

–Lurrean gertatutako aldaketa handiak. Atmosfera oxidatzailearen sorrera. Iraungipen handiak. klima aldaketak.

–Gizakiaren ekintzak lurrazalean eragindako aldaketak.

Proposamen didaktiko hau aurrera eramateko eta landu beharreko jarduera, printzipio edota kontzeptuak ordenatzeko, Aiako Harrien inguruko oinarritzko kontzeptu mapa eta Gowinen V-a egin dira, hain zuzen lana egiterako orduan hauek oinarria izan direlarik. Betiere, Nafarroako Curriculumean aurkitzen diren edukiak kontuan izanik.

3.3. Gowinen V-a:

Galdera nagusia:

Nola eman daiteke geologian ikaskuntza esanguratsua Aiako Harrietara landa irteeraren bitartez lehenengo batxilergoko ikasleekin?

Kosmobisioa:

Bigarren hezkuntzako ikasleek era esanguratsu batean geologia ikasteko aukera edukiko dute landa irteeraren bitartez. Zalantza sistematikoaren erabilera, sortutako arazoei aurre egin beharra sustatzea bai eta ikasleak hipotesiak sortzeko gaitasuna bermatzea ezinbestekoa da ikaslea konturatu dadin marko teoriko batekiko lan egitea beharrezkoa dela.

Filosofia:

Gaiarekiko planteamendu konstruktibista edukitzea, kontutan edukiz kontzeptuek eboluzionatzen dutela orokorrigo eta ulergarriagoak bihurtuz. Hezkuntza ikerketa eta landa irteeren esperientziak erabilgarriak dira ikasleei geologia irakasteko. Honetarako, ikasleek talde txikitik egingo dute lan ikaskuntza kooperatiboa bultzatuz. Era berean, ikasleek beraien inguruko zonaldearen ezagutza badute, zientziaren izaeraren ikuspegi zabalagoa bat edukitzean lagunduko die. Bai eta, naturarekiko errespetua eta honekiko kontzientzia edukitzea bultzatu.

Teoriak:

Ausubel / Novak / Gowin-en teoria konstruktibista. Ikaskuntza esanguratsua. Plaken tektonika eta Wilson zikloa

Printzipio teorikoak:

Ikasleen aurre ezagutza maila bai eta hauen interesak ezagutu behar dira beraien ikaskuntza propioa eraiki dezaten. Ikaskuntza, ikasle-irakasle interakzioaren emaitza izango da. Uniformismoa eta Aktualismoa. Horizontaltasuna eta geruzen gainjartzea.

Kontzeptuak:

Ikaskuntza esanguratsua, landa irteera, Geologia, Aiako Harriak, batolitoa, ikaskuntza kooperatiboa, meategiak, Paleozoikoa, landa koaderno, metamorfismoa, proposamen didaktikoa.

Balio-juizioak:

Geologiaren ikaskuntzan landa irteerak egitea oso jarduera garrantzitsua eta egokia da. Ondo antolatutako proposamen didaktiko bat eraikiz, betiere filosofia konstruktibisten metodologia erabiliz eta *problemen ebazpenen* motako landa irteera baten bitartez, posiblea da lehenengo batxilergoko ikasleek geologia era esanguratsuan ikastea.

Ezagutza juizioak:

Aiako Harriak ikasleek eremu hurbila geologiaren ikuspuntutik ezagutzeko egokia da. Gainera *Arazoen ebazpen* motako landa irteera hau material kontzeptualki gardenean oinarritzen da eta gainera curriculumaren hurbilketa inobatzaile bat egiten du bigarren hezkuntzako ikasleek era esanguratsuago batean Aiako ingurune geologikoa ikas dezaten lagundu duena. Ikasleak behatzen duena era zientifiko batean aztertzeke aukera eduki du eta era berean naturaren inguruko errespetua eta kontzientzia bultzatu ditu.

Transformazioak:

Kontzeptu mapen azterketen emaitzak Arroken sailkapenei buruzko txostenak Landa irteeraren sintesi gisa ikasleen landa txostenak. Bertan, eginiko ibilbidea, hartutako laginen azterketa eta taula ezberdinen bitartez identifikatutako arroka eta mineralak sailkatu dituzte.

Erregistroak:

Irakaskuntza proposamen didaktiko inobatzailea, Aiako Harrietara landa irteera biltzen duena. Landa irteeraren aurre lanketa bat, bai klasean zein laborategian. Ikasleek landa koaderno bat sortu beharko dute. Behaketa guztiak apuntatuko dira, izan ere ostean entregatuko den txostena egiteko balioarri eta oinarri izango baitira ikusi eta aztertutako lagin eta behaketak. Ikasleak galdera ezberdinak erantzun beharko ditu zeinak aztertzen ari den geologiaren azterketarako balioarri izango diren.

Gertakariak:

1. Ikasleen aurre ezagutzak ezagutzeko galdetegi bat pasako zaie lehenengo batxilergoko geologia eta biologia ikasleei.
2. Filosofia konstruktibistan oinarritutako metodologiaren inguruko bibliografiaren hausnarketa egingo da.
3. Aiako Harrien ingurunearen informazio geologikoa jasoko da.
4. Proposamen didaktiko egoki bat diseinatzea.
5. Tresna metodologiko ezberdinen erabilpena bermatuko da (mapa kontzeptualak, Gowinen V-a, PBL...).
6. Proposamen didaktikoa praktikan jarriko da.

Kontzeptu maparen bitartez, irteeran landuko diren kontzepturik garrantzitsuenak azaltzen dira inklusibo moduan. Eta ondorioz irteeraren aurre lanketan landuko diren edukiak ere izango dira. Ikasleek kontzeptuak ondo egituratuak edukitzea garrantzitsua da akats kontzeptualak ez sortzeko. Izan ere, akats hauek barneratzen direnean oso zaila da hauek zuzentzea. Geologian sortzen diren akats kontzeptual nagusiak kontzeptu hauekin erlazionatuak izaten dira: denbora geologikoa, egitura geologikoak, mineral eta arroka metamorfikoen sorrera etab. Lan honen bitartez akats hauek deuseztea da helburu, izan ere proposamen honetan erabiltzen den irakaskuntza metodoak, jarduerak eta landa irteera, kontzeptuak era egoki batean barneratzeko antolatutako baitaude.

4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA:

4.1. Proposamen didaktikoaren prestakuntza:

Proiektu didaktiko honen diseinua Novak-en LEAP (Lerning about ecology. Animals and plants, 1995) proiektua jarraituz egin da. Izan ere, ikaslearen ikaskuntza esanguratsuagoa izatea bultzatzen baitu. Proposatutako jarduerak hiru faseetan banatzen dira: sarrera, landutako faseak eta laburpena. Lehenengo fasean, kontzeptu barneratzaileenak identifikatuak izango dira eta honetarako gaiarekiko hurbilpen bat egiten da, landuko diren kontzeptuen inguruan ikaslea kokatzeko. Bigarrenean, ikasleak barneratu beharreko kontzeptuak landuko dira, honetarako, jarduera ezberdinak, laborategiko praktikak, irteera... proposatzen dira. Eta, laburpenean, aurreko faseetan landutakoa aplikatu behar da, sintesi jarduera burutuz, kasu honetan, landa txosten baten bitartez egingo dena.

Proposatzen den LEAP (I eranskina) honetan, antolatutako jarduera ezberdinak Aiako Harrien geologiaren inguruko ikasketa esanguratsua bideratzeko prestatuak daude.

Bestalde Aiako Harrien oinarrizko kontzeptu mapan azaltzen diren inklusiboak proposamen didaktiko honetan landuko diren kontzeptu orokorrak izango dira. Izan ere ikasleak mendira joaterakoan, landuko diren kontzeptuen inguruko ezagutza bat eduki behar du.

4.1.1. Ikasleen aurrezagutza:

Gaiarekiko ikasleek duten aurre ezagutza maila neurtu da sarrera moduan. Honetarako Bera Institutuko Lehenengo Batxilergoko Biologia eta Geologia ikasgaiko 16 ikasleei galdetegi (II eranskina) bat egin zaie. Bertan, ikasleek landa irteeraren inguruan duten iritzia eta beraiek bizi diren inguruneke geologikoaren inguruko galderak egin zaizkie. Lortutako emaitzek (III eranskina)

argi usten dute ikasleek landa irteerak egitea gustuko dutela eta gehiengoaren ustetan klasean ikasitakoa praktikan jartzea oso positiboa da. Bestalde, ikasleen laurdenak uste du landa irteeren bitartez klasean ikasten dena baino gehiago ikasten dela. Hala ere, ikasleen %56,25aren ustetan ikasleek ez dute arreta gehiegirik jartzen landa irteeretan. Aiako Harrien orografiari dagokionez, gehiengoak hego-ekialdeko ikuspuntua ezagutzen du, izan ere hau baita haitzek erakusten duten aurpegia Bortzirietatik begiratzuz gero baina beste aurpegiek erakusten duten orografia orokorrean ez dute identifikatzen. Galdetegi honen bitartez, ikasleek mapa geologikoaren irakurketa, zonaldearen historia geologikoa eta ustiatutako meategien inguruan duten jakintza maila ez dela oso altua baieztatu da.

Proposatuko den landa irteeraren bidez, ikasleek bizi diren inguruaren geologia era esanguratsu batean ikasiko dute eta ikasleen geologiaren inguruko motibazioa handitzen saiatuko da. Era aktibo eta autonomo batean lan egitea bultzatu eta ikaskuntza kooperatiboa landuko dira.

4.2. Segida didaktikoaren faseak:

Lortutako emaitzak oinarri, eta hauek hobetzeko nahiarekin honako proposamen didaktikoa egiten da, non muina, lantze faseen bitartez egiten den. Proposamen didaktiko hau lantzeko 23-25 ordu inguru beharko lirateke.

- I Lantze fasea: Arroka magmatikoak, metamorfikoak eta plaken tektonika. Helburua, ikasleek era esanguratsu batean bai arroka magmatiko zein metamorfikoen sorrera, mota nagusiak, hauek ezberdintzeko teknika ezberdinen erabilpena, arroka hauen sailkapenak egitea, zein plaken tektonikak hauetan duen eragina barneratzea izango da. Guzti hau, mapa kontzeptualen bitartez landuko da klasean.
- II Lantze fasea: Mapa eta ebaketa geologikoak. Ipar-orratza nola erabili. Problemetan oinarritutako ikaskuntza erabiliko da laborategiko praktika hau egiteko. Hiru kideetako taldetan egingo dute lan. Ariketa ezberdinak burutu beharko dituzte ikasleek eta problema nagusi bat. Zalantzak argitzeko edota laguntza eskaintzeko irakaslea egongo delarik.
- III Lantze fasea: Aiako harrien ingurune geologikoa eta hauen eboluzio geologikoaren azterketa. Mineralak eta meategiak. Atal hau lantzeko, Puzzlearen teknika erabiliko da ikasketa kooperatiboa landuz. Honetarako, ikasleak hiru kideko taldeetan banatuko dira (irakasleak taldeak sortuko dituelarik). Behin taldeak sortuak, talde bakoitzari materiala banatuko zaio.

- IV Lantze fasea: Aiako harrietara irteera izango da. Klasean landutako guztia praktikan jartzeko aukera edukiko dute ikasleek. Irteera hau, *problemen ebazpena* motako landa irteera bat izango da. Honetarako, ikasleari irteeraren gida bat (IV eranskina) emango zaio. Bertan, geldialdi bakoitzaren inguruko informazioa luzatzen zaio eta erantzun beharreko galderak ere azaltzen dira. Irakasleak bere gida edukiko du non inguruko informazio geologiko gehiago eta sakonagoa azalduko den (V eranskina).
- Laburpena: Aiako Harrien mendi irteeraren osteko txostena egin eta entregatu beharko dute ikasleek. Bertan, irteeraren sintesia azaldu beharko da, bai eta mendian ikusitako eta proposamen didaktikoan landutako kontzeptuak erlazionaturik egon behar direlarik. Bestalde, txostenean, Aiako Harrien inguruko kontzeptu mapa bat egin beharko dute ikasleek ikasitako kontzeptuak erabiliz.

4.2.1. Irteeraren aurre prestakuntza:

Aipaturiko hiru lehenengo lantze faseak irteeraren aurre prestakuntza lantzeko antolatutako daude.

Aiako Harrietara proposatzen den irteeran aztertuko diren arroka motak magmatikoak eta metamorfikoak izango dira nagusiki. Ondorioz, arroka mota hauen ezaugarri, sorrera, eta berezitasunak ikasiko dira eta baita ere plaken tektonikaren teoria, izan ere inguru honetako tektonika konplexua baita eta eragin handia eduki du sortutako arroka eta mineraletan. Honetarako eta ikasleen gai honekiko jakintza maila ezagutzeko mapa kontzeptual bat egitea eskatuko zaie. Ikasle bakoitzak kontzeptu bat hautatu beharko du: arroka magmatikoak, arroka metamorfikoak edo plaken tektonika. Honela ikasleek duten ezagutzaren berri eta akats kontzeptualen berri edukiko du irakasleak. Gai honen azalpenak Cmaps programaren bitartez eginiko mapekin bideratuko da (VI eranskina). Bertan, kontzeptu garrantzitsuenak azalduko dira eta landa irteeran landuko diren aspektuak azpimarratu egingo dira. Gaiarekin bukatzerakoan ikasleek hasieran hautatutako kontzeptua erabiliz beste kontzeptu mapa bat egitea eskatuko zaie.

Mapa eta ebaki geologikoen azterketa laborategian burutuko den praktika baten bidez landuko da. Fase honen helburua ikasleek problema batzuen ebazpena lortzea izango da. Hiru ordutan banatuko da lantze fase hau. Lehengo klasean, ikasleei txosten (VII eranskina) bat banatuko zaie, non alde batetik, ipar-orratzaren erabileraren azalpenak azaltzen diren eta bestetik, mapen inguruko informazioa azaltzen den. Lagungarri izango diren ariketa batzuk egingo dituzte ikasleek hiru kideetako taldetan proposatzen den arazo zentralarekin hasi baino lehen. Bigarren sesioan problema zentralari hasiera

emango zaio, horretarako Vera de Bidasoa Magna (1:50000) mapa geologikoa eta topografikoa eta problemaren azalpen orria ere banatuko zaizkie. Behin ikasleek orri guztiak dituztela, irakasleak problema honen azalpena egingo du. Hau bukatutakoan ikasleek hiru kideko taldeetan hasiera emango diote. Behar izango balute, ordenagailuen erabilera bermatuko da, eta irakasleak bibliografia eta liburu ezberdinak utziko dizkie ikasleei. Problema hau amaitutakoan, inguru horretako zehar ebaki esanguratsu bat egitea ere eskatuko zaie. Edukitako emaitzak klase guztiari azaldu beharko dizkiete eta defendatu ere.

Aiako Harrien geologiaren atala lantzen hasi aurretik bideo bat ikusiko da, non Aiako Harrien Parke Naturaleko informazio ugari dagoen. (http://www.berdeberdea.net/archivos_películas/mendiz_mendi/index-eu.htm) Bideo honetan landa irteeran landuko diren gai asko azaltzen dira eta zonaldea geologikoki aztertzen du bai eta honen eboluzio geologikoa. Bideo honen bitartez, ikasleak inguruaren ikuspegi bat edukiko du. Bideoa amaitzean eztabaida bat proposatuko da ikasleek kontzepturik garrantzitsuenak amankomunean jartzeko.

Aiako Harrien geologia eta zonalde honen eboluzio geologikoa aztertzeko puzzlearen teknika erabiliko da. Teknika honen bitartez, ikasleak kontzentrazio eta kontzeptuen konexioa eman dadin ahalegin bat egin behar du eta honek ikaskuntza esanguratsu bat ematen laguntzen du. Irakasleak talde heterogeneoak sortuko ditu lau pertsonetako taldeak izanik. Teknika honen metodologia hiru zatitan banatzen da:

- Lehenik, testuen irakurketa egin da: talde bakoitzeko kide bati testu bat emango zaio irakurri eta ulertzeko.
- Adituen bilera: testu berdina irakurri duten ikasleak taldeka elkartuko dira eta testuan aztertutako kontzepturik garrantzitsuenak komentatuko dituzte. Ikasleak adostasun batera heldu beharko dira.
- Azkenik, ikasle bakoitza bere taldearekin bilduko da eta taldekide bakoitzak beste taldekideei irakurritako testuaren ideia nagusiak azalduko dizkie.
- Emaitzak egiaztatzea: ikasleek testu guztiak ondo ulertu eta barneratu dituztela konprobatzeko irakasleak galdera batzuk egingo dizkie ikasleei.

Jarduera honetarako lau testu prestatu dira Aiako harrien inguruan (VIII eranskina), testu bat zonaldeko geologiaren ingurukoa da, hurrengoa, bi zatitan banatua egongo dena, ingurunearen eboluzio geologikoaren ingurukoa da, eta azkena zonalde honetako meategien historiaren ingurukoa.

4.3. Landa irteera:

Landa irteera Aiako Harriak Parke Naturelean burutuko da. Arrazoi ezberdinak daude leku honen hautaketa egiterako orduan. Alde batetik, geologiaren ikuspuntutik zonalde oso interesgarria da honako hau; Euskal Herriko arrokarik zaharrenetarikoak azaleratzen dira, bi orogenia jasan dituen zonaldea da eta hauen aztarnak antzeman daitezke, honen ondorioz tektonikoki konplexua den zonaldea dela esan daiteke, Euskal Herriko granitozko azalaramendu bakarrak azaltzen dira. Eta bestetik, mineralizazio ugari zonaldea izandakoa da Oiartzungo ingurua, izan ere granitozko batolitoaren sorrerak filoi ugari sortu zituen arroka ostalarian eta zonaldeak jasan zuen metamorfismo txikiaren ondorioz, mineral metaliko ugari sortu ziren. Honek, meategien irekierak sustatu zituen Baskoien garaitik, hala ere Erromatarrak izan ziren zonalde guztiaren ustiaketa bideratu zutenak. Ondorioz, meategien historiagatik eta han ustiatu diren mineralengatik ere ikasleekin landa irteera bat hona prestatzea interesgarria dela pentsatzen da.

Landa irteera honen bitartez, ikasleek geologia lanak ingurune natural batean nola egiten diren eta geologiak dituen erabilerak beraien begiz ikusteko aukera edukiko dute. Hautatutako irteera mota Pedrinacik *problemen ebazpena* izendatutako landa irteerari dagokio. Izan ere, ikasleari hasierako arazo bat planteatzen zaio eta honek hautatuko du zer informazio izango zaion baliagarri. Honela, ikasleak aktibo eta autonomoak izatea bultzatuko da.

Ikasleak landa irteeraren bitartean, ikusitako guztia era ordenatu batean bere koadernoan apuntatu beharko du eta posible den bakoitzean marrazkiak erabiliko ditu ikusitakoa azaltzeko. Bideratuko zaien inguruko mapa topografikoan, geldialdi bakoitza non kokatua dagoen markatu beharko dute mapa. Landa irteera osoan zehar ikasleek nondik goaz zehazten saiatuko dira ikasleak maparen erabilera eta ipar orratzarena bermatuz. Geldialdi bakoitzean, informazioa eskuratu, ingurua ezagutu eta geldialdi bakoitzerako planteatutako galderak erantzun beharko dituzte ikasleek.

Landa irteera hau hiru kideetako talde txikietan burutuko da. Ikasleen arteko lan kooperatiboa bultzatuko da irteera bitartean, izan ere oso leku aproposa baita. Hala ere, irteeraren osteko txostena pertsonala izatea eskatuko da, ikasle bakoitzak bere ondorio propioak atera ditzan.

Erreferentziatzko markoan landa irteeren atalean aztertzen diren urratsak (Pedrinaci eta besteak, 1994) jarraituz honako landa irteera hau proposatzen da. Hau izango da proposatutako ibilbidea:

1. *Geldialdia*: Irteeraren lehenengo geldialdia Arritxulo aterpean egingo da. Bertan, ikasleei inguruko geologiari sarrera txiki bat egingo zaie (ikaslea kokatzeko) eta bertan gaudelarik eta mapa topografikoak eskuan dituztelarik,

ikasleek non gauden zehaztu beharko dute. Ikasleei gogoratuko diegu dena koadernoan apuntatu behar dutela. Geldialdi honetan ikasleak ingurune osoaren ikuspegi geologiko bat lortzeko erabiliko da. Kanpo eragileek Aiako plutoian eginiko eraldaketak aztertuko dira. Bertan, proposatutako galderei erantzuteko denbora utziko diegu ikasleei. Geldialdi honen helburua, ikasleek ikuspegi orokor bat izatea eta kanpo eragileek denboraren poderioz sortu dezaketen erliebe aldaketa antzematea da.

Hauek izango dira ikasleei proposatuko zaizkien galderak:

- Nolakoa da inguruneko orografia?
- Zer arroka motek osatzen dute?
- Nolakoa da hauen forma?
- Zergatik erakusten dute egitura edota forma zehatz hori?
- Zer kanpo eragile nagusik parte hartu du gaur eguneko orografia emanez?

2. *Geldialdia*: Arditurriko meategian burutuko da geldialdi hau. Bisita gidatu bat burutuko da meategiaren galerietatik zehar. Bisita bukatzerakoan, inguruan topatuko ditugun arroken eta mineralen azterketa egingo da. Ikasleak gai izan behar dira arroka eta mineralen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko, hauek sailkatzeko eta izendatzeko. Arroka eta mineral hauek zer prozesu geologikoren bitartez sortu diren jakin beharko dute. Ikasleei denbora emango zaie galderak erantzun eta beharrezko informazioa eskuratzeko. Geldialdi honen helburua, baliabide naturalen erabilerak bai eta geologiaren erabilera ezberdinak ezagutzea izango da, mineral eta arroka ezberdinak (metamorfikoak) identifikatu eta sailkatzea eta gizakiaren ekintzak lurrazalean eragindako aldaketak identifikatzea.

Hauek izango dira ikasleei proposatuko zaizkien galderak:

- Ze arroka mota aztertu dituzu?
- Ze mineral mota aztertu dituzu?
- Nola sortu zirela uste duzu?
- Zergatik izan dira ustiatuak mineral hauek historian zehar?
- Zer ustiatzen zen nagusiki?

3. *Geldialdia*: Aiako plutoiaren azterketa egingo da. Ikasleek laborategiko praktiketan ikasitako teknika, taula eta sailkapen ezberdinak erabili beharko dituzte plutoi honetan azaltzen diren granitozko bi fazieak ezberdintzeko, hain zuzen, kanpoko granitoen osatzen duten faziea eta barnekoek osatzen dutena. Bestalde, kanpo eragileek arroka hauetan eta paisaian orokorrean sortzen dituzten ondorioak ere aztertuko dira. Beraien kabuz informazioa biltzeko denbora utziko zaie ikasleei baita ere galderei erantzuteko. Geldialdi honen

helburua, ikasleek arroka igneo ezberdinak identifikatzea eta sailkatzea izango da.

Hauek izango dira ikasleei proposatuko zaizkien galderak:

- Ze motatako arroka daude zonalde honetan?
- Nola sortu zirela uste duzu?
- Ezberdintasunik al dago arroka batzuen eta besteen artean?
- Zer nolako mineralogia mota aztertu dezakezu?

4. *Geldialdia*: Azken geldialdia Berako herritik gertu burutuko da. Ikasleek non gauden apuntatu ostean, zutabe estratigrafiko bat altxatuko dute. Geldialdi honen helburua, geologian erabiltzen diren teknikak praktikan jartzea da.

4.4. Ebaluazioa:

Ebaluazioa egiterako orduan, Nafarroako Curriculumean 25/2007 Foru dekretuan azaltzen diren ebaluazio irizpideak hartuko dira kontutan. Bederatzi ebaluazio irizpide daude eta gure lanari egokitzen zaizkionak hauexek dira:

2. ***Ikerketak diseinatu eta egitea, lan zientifikoaren funtsezko ezaugarriak kontuan harturik (problema zehaztea, hipotesiak ematea, esperientziak diseinatu eta gauzatzea eta emaitzak jakinaraztea), honelako prozesuak aztertzeko: kristaltzea, mineralen sorrera, lurzoruaen sorrera, landareen nutrizioa, etab.***

Egiaztatu behar da ea ikasleak trebetasun eta jarrera zientifikoak garatzen ari diren, kontzeptuen, metodologiaren eta jarreraren aldetik aurrera eginez, eta hori guztia geologiarako eta biologiarako interesa duten arazoan azterketari aplikatzen dioten.

3. ***Litosferako plaka nagusiak mapan kokatzea eta haien ertzen ekintzak baloratzea.***

Sumendi eta lurrikara zonak, mendikateen sorrera, ozeano hondoen hedapena, horien materialen banaketaren simetria eta oso toki urrunetan harri eta fosil berdintsuak zergatik agertzen diren azaltzea. ebaluatu nahi da ea ikasleek badakiten zein diren eta non dauden litosferako plaka nagusiak eta nola diharduen plaka ertz bakoitzak bere mugimenduan beste plaka ertz batekin talka egiten duenean. Halaber, plakei lotutako fenomeno geologiko guztiak eta horiek eragiten dituzten indarrak interpretatzen jakin behar dute: barneko konbekzio korranteak, kontinenteen itxurazko mugimendua, erliebeen gaztetzea, erregistro fosilak, eta

4. ***Harri mota nagusiak, horien osaera, testura eta sortze prozesua identifikatzea. Non dauden eta zertarako erabiltzen diren azaltzea.***

Ikasleek harri sedimentario nagusiak ezagutu behar dituzte, bai eta haiek sortu dituzten prozesuak ere, eta prozesu horiek laborategian eragiteko esperientziaren batzuk egiten jakin behar dute. era berean, harri metamorfikoak ezagutu behar dituzte eta

buztinaren serieen fase desberdinak identifikatu. Gai izan behar dute, halaber, harri magmatikoak, bolkanikoak, filonianoak eta plutonikoak bereizteko, haietan arruntenak ezagutu behar dituzte eta testuraren bidez haien sorrera prozesua deskribatzen jakin behar dute.

Ebaluazioa egiterako ordean, hau izango da ebaluatuko dena: alde batetik ikasleak eginiko kontzeptu mapa, laborategiko praktikak, problemetan oinarritutako lana, puzzlearen ariketa, landa txostena eta unitate didaktiko honetan egindako jarduera ezberdinetan ikasleak erakutsi duen jarrera eta parte hartzea ere baloratuko dira. Kasu batzuetan taldeak egindako lana puntuatuko da eta beste kasu batzuetan kalifikazioa indibiduala izango da. Horrela laburbiltzen da ebaluazioa:

Jarduera	Jarduera bakoitzaren %-en kalifikazioa	Taldeko nota	Bakarkako nota
Kontzeptu mapa	%10	-----	%100
Arroka magmatikoen laborategi txostena	%5	%100	-----
Arroka metamorfikoen laborategi txostena	%5	%100	-----
Problemaren ebazpena (PBL)+ariketak	%20	%60	%40
Puzlea	%10	%50	%50
Landa txostena	%40	-----	%100
Jarrera eta parte hartzea	%10	-----	%100

Kontutan eduki behar da, bai problemaren jarduera egiterakoan, puzzlearen jardueran eta baita ere landa irteeran ere, ikasleek beraien buruak eta beraien taldekideenak ere kalifikatuko dituztela. Bi jarduera hauetan ikasleei auto-erregulazio orri (IX eranskina) bat emango zaie zintzotasun osoz bete dezaten. Ondorioz, bakarkako notaren portzentuaren erdia ikasleek jarriko dute eta beste erdia irakasleak baloratuko du.

5. ONDORIOAK:

Proposamen didaktiko hau sortu eta aztertu ostean, esan daiteke, landa irteera kontzeptualki garden eta esanguratsu baten bitartez 1go Batxilergoko ikaslearen geologiaren ikaskuntza esanguratsua ematen dela. Hala ere, lan hau ezin izan da praktikara eraman lan teoriko bat izanik.

Lan hau, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutuetan inplementatu zitekeen. Hala ere, aurkezten den irteera Aiako Harriak izanik, zonaldearekiko

gertutasuna duten Institutuetara begira egin da. Abiapuntua Berako Toki Ona Institutua izan da, hain zuzen ere egileak hor burutu baitzuen Masterreko II Practicum eta 1go Batxilergoko Biologia eta Geologia ikasleek beraien inguruarekiko zuten jakintza maila ezagutzeko galdetegia ere bertan egin ziren.

Kontzeptualki gardenagoak diren material didaktiko eta filosofia konstruktibistan oinarritutako metodologia erabiliz, jarduera ezberdinak proposatu dira ikaskuntza esanguratsua lortzeko helburuarekin. Lan honen asmoa, ikaskuntza tradizional eta memoristikoa alde batera utzi eta ikaslea ikaskuntza garapenaren erdigunean jarriz ikasle/irakasleen arteko rolak eraldatzea da.

Lan honetan, landa irteera aurreko jarduerak kontutan eduki dira lan kooperatiboari garrantzia emanez. Era kooperatiboan lan egiten soilik aprobetxatu bai daitezke taldeko kide bakoitzak eskaintzen duen trebetasun eta ezagutza. Ikasleek ikasteko beste era bat biziko dute, era aktibo batean lan egitea bultzatzen baita, bai eta era autonomo batean geologiaren azterketak naturan egiteko aukera.

Azken finean, landa irteerak jarduera egokiak dira ikasleekin egiteko, beti ere helburuak, prozedurak eta hauekiko jarrerak ondo zehaztuak badaude. Ikasleari paraje natural paregabea eskaintzen zaio, Aiako Harriak, klasean ikasitakoa errealitatean aztertzeko aukera emanez. Ikasleak naturarekiko duen jarrera, baliabide naturalen erabilera egokia eta azken finean ekologiaren kontzientzia suspertzea bultzatzen du, bai eta ikaslea bera motibatzea ere. Gainera, landa irteeraren bitartez, datu eta informazioaren eskuratzearen, hauen azterketa eta ulertzearen, epe luzerako atxikpenaren eta jakintzaren transferentziaren bitartez ikaskuntza esanguratsua bultzatzen da.

“El objeto de estudio de las ciencias es, ese mundo que nos rodea, a él se dirigen los conocimientos científicos y con él se contrasta su validez. Y, si esto es así, el objeto de estudio se encuentra mayoritariamente fuera del aula”
(Pedrinaci, 2012. Trabajo de campo y aprendizaje de las ciencias. Alambique. Didáctica de las Ciencias Experimentales)

6. BIBLIOGRAFIA:

- APRAIZ Atutxa Arturo (2005). Plaka-tektonika: Lurraren funtzionamendua ulertzeko teoria. Udako Euskal Unibertsitatea.
- BARROWS H.S. (1986) A Taxonomy of problem-based learning methods, *Medical Education*, 20:481-486.
- BRUSI, D. (1992). Reflexiones en torno a la Didáctica de las salidas de campo en Geología. Aspectos metodológicos. *VII Simposio sobre enseñanza de la Geología. Santiago de Compostela*. 391-407.
- Curriculum Navarro.
- DEL TORO, R. y MORCILLO J.G. (2011). Las actividades de campo en educación secundaria. Un estudio comparativo entre Dinamarca y España. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*. 19.1: 39-47.
- GARCÍA DE LA TORRE, E. SEQUEIROS San Romá, L. eta PEDRINACI Rodríguez, E. (1993). Fundamentos para el Aprendizaje de la Geología de Campo en Educación Secundaria: Una Propuesta para la Formación del Profesorado. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*. 1 (1), pp. 11-18.
- GURUCEAGA Zubillaga, Arantzazu y GONZÁLEZ García, Fermín. Un módulo instruccional para un aprendizaje significativo de la energía. Departamento de Didáctica de las Ciencias Experimentales. Universidad Pública de Navarra.
- JOHNSON D. W., JOHNSON R.T., HOLUBEC E. J. (1999): El aprendizaje cooperativo en el aula. Buenos Aires: Paidós.
- MOREIRA Marco Antonio (1997). Aprendizaje significativo: un concepto subyacente.
- NOVAK, J. D. & D. B. GOWIN. (1984). *Learning How to Learn*. New York: Cambridge University Press.
- NOVAK, J. D. (1987). Science Education Research Interests of Elementary *Journal of Research in Science Teacher*. 27(7). 659-677.
- NOVAK, J. D. eta GOWIN, D. (1988). Ed. Martínez Roca. *Aprendiendo a aprender*. Barcelona.
- PACE, S. y TESI, R. (2004). Adult's perception of field trips taken within grades k-12: Eight case studies in the New York metropolitan area. *Education*, 125 (1): 30-40.
- PASCHOALE, C. (1988). Alice no pais da Geologia e o que ela encontrou lá. *Revista de Semiótica e Comunicação*. 1(1). 87-99.
- PEDRINACI, E., SEQUEIROS, L., GARCÍA DE LA TORRE E. (1994). El trabajo de campo y el aprendizaje de la Geología. *Alambique*. 2: 37-45.
- PEDRINACI E. (2012). Trabajo de campo y aprendizaje de las ciencias. *Alambique. Didáctica de las Ciencias Experimentales*. 77: 81-89.
- REVELO, D., MARQUÉS L., y COSTA N. (2011). Actividades en ambientes exteriores al aula en la Educación en Ciencias: contribuciones para su operatividad. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*. 19.1: 15-25.
- <http://www.luberri.org/euskera/index.html>
- http://www.berdeberdea.net/archivos_películas/mendiz_mendi/index-eu.htm
- http://edu.jccm.es/ies/libertad/attachments/794_El%20mapa%20y%20la%20br%C3%BAjula.pdf
- <http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur25/lozan01.htm>
- <http://www.igme.es/internet/default.asp>

7. ERANSKINAK:

I ERANSKINA.....	25
II ERANSKINA.....	29
III ERANSKINA.....	34
IV ERANSKINA	39
V ERANSKINA	43
VI ERANSKINA	46
VII ERANSKINA	52
VIII ERANSKINA	68
IX ERANSKINA	79

I ERANSKINA:

HELBURU DIDAKTIKOA	FASEEN PROPOSAMENA	JARDUEREN SEKUENTZIA	JARDUERA BAKOITZEAN LANTZEN DIREN KONPETENTZIAK
Aiako Harrien inguruan ikasleek dakitena ezagutzea	SARRERA (klase bat erabiliko da)	1. Jarduera: Galdetegi bat erantzun.	-Landuko diren gaien inguruko ikasleek duten jakintza lantzea.
Arroka magmatiko eta metamorfikoen sorrera, eboluzioa eta plaken tektonikaren ikasketa. Ikasleek arroka magmatiko eta metamorfiko nagusiak ezberdintzeko gaitasuna lortzea da helburu. Plaken tektonikak hauetan duen eraginarekin erlazionatzea.	I LANTZE FASEA (8 klase erabiliko dira)	<p>2. Jarduera: Ikasleek kontzeptu mapa bat egin beharko dute. Hiru kontzeptu edukiko dituzte hautatzeko: arroka magmatikoak; arroka metamorfikoak; plaken tektonika.</p> <p>3. Jarduera: Irakasleak Cmaps programa erabiliz hiru kontzeptu hauek azaldu eta beraien arteko erlazioak ezagutaraziko die ikasleei.</p> <p>4. Jarduera: Ikasleek arroka magmatiko esanguratsuenak ezberdintzen ikasiko du. Jarduera honetarako, laborategia erabiliko da. Ikasleari baliabide ezberdinak emango zaizkio: taula ezberdinak, sailkapenak.... Laborategian 3ko taldetan lan egingo dute ikasleek eta beraien koadernoan nota ezberdinak hartuko dituzte, non arroka ezberdinen ezaugarri nagusiak azalduko diren. Taldeak laborategiko txosten bat entregatuko du sailkatutako harrien azalpenekin.</p> <p>5. Jarduera:</p>	<p>-Landuko diren gaien inguruko ikasleek duten jakintza lantzea.</p> <p>-Kontzeptu mapak nola egiten diren ikasi.</p> <p>-Arrokak sailkatzen ikasi. Sailkapen eta taula ezberdinen erabilera bermatzea eta laborategiaren erabilera egoki bat egitea.</p> <p>-Behaketak eta identifikatzen ikasi.</p> <p>-Arrokak sailkatzen ikasi. Sailkapen eta taula</p>

		<p>Ikasleek arroka metamorfiko esanguratsuenak ezberdintzen ikasiko du. Jarduera honetarako, laborategia erabiliko da. Ikasleari baliabide ezberdinak emango zaizkio: taula ezberdinak, sailkapenak.... Laborategian 3ko taldetan lan egingo dute ikasleek eta beraien koadernoan nota ezberdinak hartuko dituzte, non arroka ezberdinen ezaugarri nagusiak azalduko diren. Taldeak laborategiko txosten bat entregatuko du sailkatutako harrien azalpenekin.</p> <p>6. Jarduera: Ikasleak hasieran hautatutako kontzeptuarekin beste kontzeptu mapa bat egingo du.</p>	<p>ezberdinen erabilera bermatzea eta laborategiaren erabilera egoki bat egitea. -Behaketak eta identifikatzen ikasi.</p> <p>-Kontzeptu mapak egiten ikasi.</p>
<p>Mapa topografiko, ebakidura eta mapa geologiko sinpleen interpretazioa egiten ikasi. Ipar orratza nola erabili ikasi eta praktikatu.</p>	<p>II LANTZE FASEA (4 klase erabiliko dira)</p>	<p>7. Jarduera: Ikasleek 3 pertsonetako talde heterogeneotan problema bat burutuko dute (Problemetan oinarritutako ikaskuntza). Jarduera honen helburua, ikasleek era autonomo eta kooperatibo batean, irakasleak emango dizkien koordenatuak erabiliz, mapa geologikoan eskatutako ingurunea zehaztu eta honen azterketa geologiko bat egitea izango da. Inguru horretako zehar ebaki esanguratsu bat egitea ere eskatuko zaie. Edukitako emaitzak klase guztiari azaldu beharko dizkiete.</p>	<p>-Lan kooperatibo eta autonomia.</p>

<p>Aiako Harrien ingurune geologikoa eta hauen eboluzio geologikoaren azterketa. Aiako Harriak eta meategiak.</p>	<p>III LANTZE FASEA (2 klase erabiliko dira)</p>	<p>8. Jarduera: Bideo bat ikusiko da , non Aiako Harrien inguruko informazio ugari dagoen. Ikasleei azaltzen diren kontzepturik garrantzitsuenak apuntatzeko eskatuko zaie. Bideoa amaitzean eztabaida bat proposatuko da ikasleek kontzepturik garrantzitsuenak amankomunean jartzeko. (http://www.berdeberdea.net/archivos_películas/mendiz_mendi/index-eu.htm)</p> <p>9. Jarduera: Puzzlearen teknika erabiliz landuko da jarduera hau. Ikasleak lau kideko taldeetan banatuko ditu irakasleak. Ondoren, ikasle batzuei ingurune geologikoaren inguruko informazioa banatuko zaie, besteei, inguruneko eboluzio geologikoarena (bi zatitan banatuko dena) eta geratzen den taldeari Aiako Harrien eta meategien arteko erlazioa eta ustiatu izan diren mineralen inguruko informazioa. Ikasleek behin materia barneratua dutela, beraien ikaskideei azaldu beharko diete.</p>	<p>-Informazio zientifikoaren bilaketarako estrategien erabilera, informazio egokia ulertu eta aukeratzeko. - Zientzia arlotik ikertu daitezkeen kuestioak identifikatzea. -Jende aurrean hitz egiten ikastea zure iritzia defendatuz. Hizkuntza komunikazioa.</p> <p>-Lan kooperatibo eta autonomia -Informazioa lortu eta aztertzeko gaitasuna.</p>
<p>Ikasitako kontzeptu guztiak barneratu direla konprobatzea, teknika, sailkapen eta taulak era</p>	<p>IV LANTZE FASEA (egun osoko irteera izango da)</p>	<p>10. Jarduera: Aiako Harrietara landa irteera.</p>	<p>-Ezagutza zientifikoa ebaluatu pertsonen bizitzaren hobespenerako. -Baliabide naturalen erabilera arduratsua, ingurumena babestu eta banakako zein taldeko osasuna ere.</p>

<p>praktiko batean erabiltzeko kapazitatea eskuratu.</p>			<ul style="list-style-type: none"> -Pertsonak Lurrean eragina dutela jakitea, bai honen jarduera zein aldaketengatik. -Zientziarekiko jarrera eta interesa. -Zientziaren ezagutzak egoera konkretu baterako aplikatzen jakitea. -Ondorioen alde eta kontra argudiatzea , ondorioak lortzeko datu bilketa, frogak lortzea. -Frogetan oinarritutako ondorioak lortzea. Obserbazio zuzen eta zeharkakoak egitea kontzientzia teoriko batetik abiatuta. -Informazioa lortu eta aztertzea. -Ikaskuntzaren auto-erregulazioa. -Mundu fisikoarekin elkarrekintza eta ezagutzaren gaitasuna. -Autonomia eta inizatiba pertsonala.
<p>Ikasitako kontzeptu guztien sintesia izango den Aiako Harrien irteera egin osteko txostena.</p>	<p>LABURPENA</p>	<p>11. Jarduera: Aiako Harrietako landa irteeraren osteko txostena egin beharko dute ikasleek. Bertan, Aiako Harrien kontzeptu mapa orokorra egingo dutelarik.</p>	<p>-Informazio zientifiko esanguratsua ezberdintzen ikasi, informazio egokia ulertu eta aukeratu.</p>

II ERANSKINA:

Masterreko lan finala - Ainhoa Bengoa

GALDETEGIA


1. Orokorrean ikasleek mendi-irteerak gustuko izaten dituzte. Zure ustetan, apustu egokia al da mendi-irteerak egitea? Zergatik uste duzu hori?

Nire iritziz egokia da mendi-irteerak egitea bati ere gaia edota ikasgaia lantzen bada. Nire ustez, liburutik ikasi duguna modu praktikoan kanpooan jartzeak gaiarekiko grina sortzen du horregatik apustu egokia dela uste du.


2. Mendi-irteera batean ikasten dena klasean ikasitakoarekin konparatuz, eta zure ikaskuntza prozesuari begira, zein abantaila eta desabantaila ikusten dizkiozu?

ABANTAILAK	DESABANTAILAK
Irteera batean gaia modu zuzenean ikusten da eta modu orriagorren ezei.	Ikasleen jarrera desabantaila biltzen daiteke, interes eta baldin badago.
Gaia esperimentalki lantzek gai hori buruzko grina sortzen du.	Belarbada kanpooan denbora gehiago behar da gaia lantzeki klasean baino.

3. Lehenengo irudia Aiako Harriei egokitzen zaien argazkia da, seguruenik ezaguna egingo zaizu Lesakatik aterata baitago. Baina, beste argazkiak Aiako Harriei dagozkie edota beste zonalde bati? Posible izanez gero adierazi nondik aterata egon daitekeen argazkia.




2



→ Diako Hamiak

3



→ Ez dira Diako Hamiak

4




→ Diako Hamiak

5



→ Diako Hamiak

4. Mapa geologiko (1) hau aztertuz, jakingo zenuke irudikatutako zonaldea zein den? Posible al duzu material, mendi edota herriren bat identifikatzea? (geziak erabili). Honetarako lagungarri izango duzulakoan mapa topografikoa duzu.



5. Bizi zaren zonaldeko 3 arroka mota aipa itzazu eta arroka horiek non aurkitu ditzakegun zehaztu ezazu:

ARROKA MOTA	KOKALEKUA
Granitoa	Diako harri zonaldean.


6. Ba al dakizu ze arroka mota ustiatu izan diren inguruko meategietan? Nola sortu ziren harri hauek?

Ez dakit.

7. Euskal Herriko historia geologikoa oso zabala dela jakinda, eta bertan aurkitzen diren arrokarik zaharrenak bizi zaren zonaldean kokatzen direla ezagutuz, zein Aro geologikotan sortu zirela uste duzu? Posible izango zenuke zure zonaldearen sorrera irudi batekin erlazionatzeko?


Arro paleozoikoa

1. irudia: Duela 360 eta 280 milioi urteen artean. Euskal Herriko lehen alde kontinentalak igo egin ziren itsas hondotik.




Hau

2. irudia: 140 eta 65 milioi urteen artean: Oraindik ere Oiartzun harana eta Euskal Herriaren gehiena ere itsaspean zeuden. Klima tropikala nagusitu zen garai honetan eta koralezko uhari handiak sortu ziren.



3. irudia: Duela 15 milioi urte, ia Euskal Herri osoa altxatua zegoen. Ondorioz garai honetan higadura nagusitzen da eta erliebe aldaketak ematen dira.



8. Ba al dakizu zergatik diren hain garrantzitsuak Aiako Harriak geologiaren ikuspegitik?

Geologiaren ikuspegiatik inguru hau arrotza aldetik benetan aberatsa delako.

III ERANSKINA:**GALDETEGIAREN EMAITZAK**

Ikasleek galdetegia beraien gelan egin zuten irakasle gabe, ikasleak eta ni aurkitzen ginen gela. 50 minutu eduki zuten galderak erantzuteko, baina orokorrean ordu erdi erabili zuten. Beraien artean ez kopiatzeko eta galdera bat ez jakitekotan ez erantzuteko eskatu zitzairen. Irudiak proiektore bidez ikusteko aukera zegoen, koloretan eta kalitate hobea erakutsiz. Orokorrean oso galdera zailak zirela komentatu zuten ikasleek.

1. **Galdera:** Orokorrean ikasleek mendi-irteerak gustuko izaten dituzte. Zure ustetan, apustu egokia al da mendi irteerak egitea?

- Bai: 16 ikasle
- Ez: 0 ikasle

-Zergatik uste duzu hori?

Erantzun positiboak	Ikasle Kop.	Desadostasun	Ikasle kop.	Baldintza	Ikasle kop.
Klasean ikasitakoa praktikan jartzen da	6	Gutxi egiten dira	1	Egokia da, ikasitakoa lantzen bada	1
Klasean baino gehiago ikasten da	6	Ikasle askok ez du interesik jartzen	1	Egokia da, ikasleek interesa jartzen badute	1
Naturarekin kontaktua	6				
Interesgarriak dira	4				
Ingurune berriak ezagutzen dira	4				
Informazio asko eskuratzen da	3				
Ikaslea motibatu	3				
Hobeto ikasten da	2				
Ikasteko modu ezberdina	1				
Dibertigarria da	1				

2. **Galdera:** Mendi irteera batean ikasten dena klasean ikasitakoarekin konparatuz, eta zure ikaskuntza prozesuari begira, zein abantaila eta desabantaila ikusten dizkiozu?

ABANTAILAK

Ikasle

DESABANTAILAK

Ikasle

	kop.		kop.
Ikasitakoa errealitatean ikusi/praktikan jarri	13	Ikasleak gaizki portatzeko aukera, interes gutxi	9
Klasean baino gehiago ikasten da	6	Beste klaseak galtzen dira	4
Dibertigarria da	6	Eguraldiaren menpe	2
Ikaslea motibatu	4	Ezin dira beti egin	2
Ingurunea ezagutzeko aukera	4	Inguruneari buruzko ezagutza handia eskatzen du	1
Ikasleen arteko harremana hobetzen du	3	Antolatzeke lana eskatzen du	1
Interesgarria da	3	Egun oso bat behar da	1
Errazago ulertzen da	3	Arriskutsua	1
Ikasteko metodo berria	3	Garraioa garestia da	1
Mendian ikasten dena hobeto gogoratzen da	1		
Deskonektatzeko modu bat	1		

3. Galdera: Lehenengo irudia Aiako Harriei egokitzen zaion argazkia da, seguruenik ezaguna egingo zaizu Lesakatik aterata baitago. Baina beste argazkiak Aiako Harriei edota beste zonalde bati dagozkie? Posible izanez gero adierazi nondik aterata egon daitekeen argazkia:

ARGAZKIAK	Aiako Harriak direla erantzun duten ikasle kop.	Lekua zehaztu duena
Bigarrena	13	1
Hirugarrena	9	
Laugarrena	5	1
Bostgarrena	6	

Hirugarren argazkia ez dira Aiako Harriak, Anboto mendia da.

4. Galdera: Mapa geologikoa aztertuz jakingo zenuke irudikatutako zonaldea zein de? Posible al duzu material, mendi edota herriren bat identifikatzea? Lagungarri izango duzulakoan mapa topografiko bat eransten da.

-4 ikaslek erantzun dute galdera:

- Baztan+Bortziriak (non dauden zehaztu gabe): 2
- Bortzirien herriak mapan kokatuak: 1
- Frantzia itsasoa dela uste du: 1

5. **Galdera:** Bizi zaren zonaldeko 3 arroka mota aipa itzazu eta arroka horiek non aurkitu ditzakegun zehaztu ezazu.

ARROKA MOTA	KOKALEKUA	Ikasle kop.
Kareharria	Igantzikoko harrobia	7
Granittoa	Aiako Harriak	7
Kareharria	-----	6
Kareharria	Berako harrobia	2
Granittoa	-----	2
Kareharria	Aiako Harriak	1
A. Sedimentarioak	Lesaka	1
A. Metamorfikoak	Bera	1
Basaltoa	-----	1

6. **Galdera:** Ba al dakizu ze arroka mota ustiatu izan diren inguruko meategietan? Nola sortu ziren harri hauek?

ARROKA MOTA	NOLA SORTU ZEN	Ikasle kop.
Kareharria	-----	4
Granittoa	-----	3
A. Metamorfikoak	Presio eta tenperatura altuetan	1

7. **Galdera:** Euskal Herriko historia geologiakoa oso zabala dela jakinda, eta bertan aurkitzen diren arrokarik zaharrenak bizi zaren zonaldean kokatzen direla ezagutuz, zein Aro geologikotan sortu zirela uste duzu? Posible izango zenuke zure zonaldearen sorrera irudi batekin erlazionatzeko?

IRUDIA	ARO GEOLOGIKOA	Ikasle kop.
Lehenengoa	Paleozoikoa	1
	-----	3
Bigarrena	Paleozoikoa	1
	Metal Aroa	1
	-----	6
Hirugarrena	Paleozoikoa	2
	-----	3

8. Galdera: Ba al dakizu zergatik diren hain garrantzitsuak Aiako Harriak geologiaren ikuspegitik?

ERANTZUNAK	Ikasle kop.
Oso zaharrak direlako	3
Mineral ezberdin asko topa daitezkeelako	2
Granittoa dagoelako eta inguru honetan harri hauek gutxi daudelako	1
Harri interesgarriak daudelako	1
Sortu ziren garaiko geologiaren berri ematen dutelako	1
Garai batean bertatik baliatzen zirelako tresnak egiteko	1
Kareharri asko dagoelako	1

EMAITZEN HAUSNARKETA

Argi geratu da ikasleek mendi irteerak egitea gustuko dutela, hain zuzen ere ikasleen %100 baieztatu baitu. Ikasleen %37,5-ak uste du klasean ikasitakoa praktikan jartzen dela, klasean baino gehiago ikasten dela eta naturarekin kontaktuan egotea gauza positiboa dela. Ikasleen %25-ak mendi-irteerak interesgarriak eta ingurune berriak ezagutzeko aukera ematen dutela uste dute. Ikasleen %18,75-ak informazio asko eskuratzen dela eta ikaslea motibatzen dela pentsatzen du.

Landa irteeren abantaila nagusia (%81,25) ikasitakoa errealitatean ikusteko eta praktikan jartzeko aukera da. Bestalde desabantaila nagusia (%56,25) ikasleen arreta falta izango litzateke.

Aiako Harrien orografiari dagokionez, ikasleak Aiako Harrien argazki ezagunena (2. argazkia) identifikatzeko gai izan dira (%81,25). Hala ere, ikasleen %56,25-ak hirugarren argazkia Aiako Harriak zirela pentsatu du eta ez dira. Azken bi argazkiak, Aiako Harrien argazkiak direnak, ikasleen %31,25-k laugarren argazkia errekonozitu du eta ikasleen %37,5-k bosgarrena. Pertsona bakarrak zehaztu du argazkiak nondik aterata zeuden.

Ikasleak ez dira gai izan mapa geologikoaren interpretazioa egiteko. Lau ikaslek erantzun dute galdera hau eta bakarra izan da Bortzirietako herriak berain lekuan kokatzeko gai.

Ikasleak bizi diren inguruan dauden arroka mota ezberdinak aipatzerako orduan, ikasleak nagusiki kareharria eta granittoa daudela erantzun du. Ikasleen %43,75-ak kareharriak Igantziko harrobiarekin erlazionatu ditu eta portzentu berdina Aiako Harriak granitoarekin.

6. galderan ikasleek orokorrean kareharriaren ustiapena aipatu dute Igantziko harrobiarekin erlazionatuz baina inork ez du komentatu arroka metalikoak eta

hauen artean mineral metalikoak izan direla Erromatar garaitik ustiatuak izan direnak.

Aro geologikoari dagokionez, ikasleek Paleozoikoarekin erlazionatu dute, hala ere ikasle bakarra izan da dagokion irudiarekin erlazionatu duena.

Azken galderan hiru ikasle izan dira, Aiako Harrien garrantzia hauen adinarekin erlazionatu dutenak eta batek komentatu du granitoak daudelako dela.

IV ERANSKINA:

AIAKO HARRIA LANDA IRTEERA

1. Batxilergoa

Ikaslearen gida

AIAKO HARRIETARA LANDA-IRTEERA


1. HELBURUA:

Landa irteera honen bitartez, ikasleak orain arte klasean eta laborategian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera edukiko du. Mendi irteera honen helburua, ikaslea era aktibo eta autonomo batean beharrezko datuen bilketa egiteko kapazitatea bultzatzea izango da. Bukaeran, aztertutako guztia landa txosten batean aurkeztuko du ikasleak, non Aiako Harrien mapa kontzeptual orokorra azalduko den.

2. KOKAPENA

2.1 Kokapen geografikoa

Landa irteera hau, Aiako Harria Parke Naturalalean egingo da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ekialdeko muturrean kokaturik dago (1. Irudia), luze-zabaleraz 6913 ha eta perimetroz 105,5 km dituelarik. Hala ere, Nafarroan geldialdi bat egingo da. Borobildutako lekuak geldialdiak dira.




1. Irudia: Gipuzkoako zonaldeko Aiako Harrietako Parke Naturala.

2.2. Kokapen geologikoa

Bortzirietako mendigunea Pirinioetako arlorik bitxienetariko bat dugu. Pirinio Axial edo zentralerako deituriko mendebalderantz aurkitzen den azken irtenunea hain zuzen ere, eta ezaugarri zehatz batzuk jasotzen ditu. Bestek beste:

Euskadi Elkarte Autonomoko metaketa serierik zaharrenetarikoein kontaktzen du eta lur barruko intrusioak eta diapirismo fenomenoak aurkezten ditu. Halaber hau guztiari, geomorfologia paregabeko bat gehitu behar zaio, Gipuzkoa mailan inon aurkitzen den erliebearen lerrokatze berezi bat.



2. irudia: Gipuzkoako zonaldeko Aiako Harrien mapa geologikoa.

3. IRTEERAN ERABILIKO DIREN MATERIALAK:

- Irteerako gida eta zonaldeko mapa topografikoa eta geologikoa (Magna 1:50000, Vera de Bidasoa).
- Tapa gogorreko koaderno handia, koadrikulatua.
- Arkatza eta borragoma.
- Iparrorratza eta mailua (irakaslea arduratuko da).
- Metroa.
- Argazki kamera.

Ikasleei gomendatzen zaie mendiko arropa ekartzea, motxila, kantinplora eta bazkaria.

4. IBILBIDE ETA GELDIALDIAK:

1. Geldialdia: Arritxulo aterpea. Inguruneari begirada bat emateko leku paregabea. Mapa topografikoaren irakurketa bat egingo da eta ikasleek non gauden apuntatu beharko dute mapan.

- Nolakoa da inguruneko orografia?
- Zer arroka motek osatzen dute?
- Nolakoa da hauen forma?
- Zergatik erakusten dute egitura edota forma zehatz hori?
- Zer kanpo eragile nagusik parte hartu du gaur eguneko orografia emanez?

2. Geldialdia: Arditurriko minak. Mapa topografikoan non gauden apuntatu. Minen galerien barne ibilbide gidatua. Hau egin ostean, kanpoaldean aurki daitezken arroka eta mineralen azterketa egingo da.

- Ze arroka mota aztertu dituzu?
- Ze mineral mota aztertu dituzu?
- Nola sortu zirela uste duzu?
- Zergatik izan dira ustiatuak mineral hauek historian zehar?
- Zer ustiatzen zen nagusiki?

3. Geldialdia: Granitoak. Mapa topografikoan non gauden zehaztu. Arroka ezberdinen arteko ezaugarriak zerrendatu eta aztertuko dira.

- Ze motatako arrokek daude zonalde honetan?
- Nola sortu zirela uste duzu?
- Ezberdintasunik al dago arroka batzuen eta besteen artean?
- Zer nolako mineralogia mota aztertu dezakezu?

4. Geldialdia: Bera. Mapa topografikoan non gauden zehaztu. Ebaki topografiko bat burutuko da bertan.

5. LANDA IRTEERAREN TXOSTENA:

- Geldialdi bakoitzean lorturiko informazioa agertu behar da.
- Klasean landutakoa txostenean txertatuta egon behar du.
- Mapa topografikoan eginiko ibilbidea marraztua azaldu behar da.
- Txostenean galderen erantzunak agertu behar dira.
- Sintesi modura Aiako Harrien kontzeptu mapa bat egingo da.

V ERANSKINA:

IRAKASLEAREN GIDA - AIAKO HARRIAK

SARRERA:

Bortzirietako mendigunea Pirinioetako arlorik bitxienetariko bat dugu. Pirinio Axial edo zentralako deituriko mendebalderantz aurkitzen den azken irtenunea hain zuzen ere, eta ezaugarri zehatz batzuk jasotzen ditu. Besteak beste: Euskadi Elkarte Autonomoko metaketa serierik zaharrenetarikoekin kontatzen du eta lur barruko intrusioak eta diapirismo fenomenoak aurkezten ditu. Halaber hau guztiari, geomorfologia paregabeko bat gehitu behar zaio, Gipuzkoa mailan inon aurkitzen den erliebearen lerrokatze berezi bat.

OROKORTASUNAK:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ekialdeko muturrean kokatua dago. Udalerri ezberdinez osatua dago: Errenteria (%25,1), Oiartzun (%44,7), Irun (%18,2), Hernán (%9) eta Donostiak (%3).
- Luze-zabaleraz 6913 ha eta perimetroz 105,5 km ditu.
- Altuera: 6m-tatik 834m-tara.
- Klima epela dago batz bestea 12°C daudelarik eta zonalde oso euritsu da.

AIAKO HARRIEN GEOLOGIA OROKORRA:

Landa irteera hau, Pirinio mendigunean burutuko da, hain zuzen, Pirinio axialaren ekialdean. Zonalde honetan, arroka hertzinikoak azaltzen dira.

Euskal Pirinioetako ezaugarriarik ikasiena Arkuaren dispozizioa da. Arku honek material Hertziniko ezberdinak zeharkatzen ditu: Quinto Real, Alduides, Aiako Harriak, Bortziriak... Zonalde honetan ere, Mesozoiko eta Zenozoiko materialak azaltzen dira. Hala ere material hauek zokalo hertzinikora egokitzapenaren ondorioz baldintzatuak egongo dira.

Zonalde honetan material hertzinikoak, mesozoiko materialak, tertziarioko materialak eta kuaternarikoak azaltzen dira. Hauen arteko ezberdintasun morfologikoek esango digute zein material diren. Bi prozesu orogeniko jasan dituzte material hauek. Lehenengoa orogenia hertziniarra izan zen eta ondoren orogenia alpetarra.

Litologia:

Lan eremu honetan, litologia ezberdin asko aurkituko dira leku honen historia geologiko zabala dela eta.

Karboniferoko Stephaniense garaiko, arbel eta grauwakak aurkitzen dira, zeinak zutabe stratigrafikoaren behealdean kokatuko diren. Kontuan eduki behar da garai honen bukaeran orogenia hertzinikoaren azken bultzadak izango zirela eta honen ondorioz zonaldearen higadura bat ematen da, leku batzuetan material hauek desagerraraziz.

Hauen gainean permotriasikoko materialak azaltzen dira, Buntsandstein terrigenoak, Muschelkalk kalkareoa (ia agertzen ez dena) eta oso plastikoa den Keuper materialak, igeltsoz, buztinez eta azalaramendu ofitiko osatua. Material hauek dira diapirismoa sortzen dutenak.

Triasiko honen gainean oso kalkareoa den material Jurasikoak azaltzen dira. Litologia ezberdinak azaltzen dituzte. Nabarmendu nahi diren litologiak, orden estratigrafikoan hauek dira: Karniolak, bretxak, dolomiak, margak eta kareharri bioklastikoak. Ondorioztatzen da, Jurasikoaren lehen partean itsasoaren trasgresio bat eman zela. Bestalde, Dogger garaia amaitzerakoan, eta Malm bitartean, litologia terrigeno gehiago azaltzen dira, hala nola, lutita gorriak, hareharri silizeoak... Hauek erregresio bat markatzen dute.

Behe Kretazeoa ezaugarritzen da bi fazie oso desberdinen ondorioz. Bata, Fazie urgondarraren ezarpena eta bestea, Fazie urgondarra. Material hauek litologia kalkareoa erakusten dute. Hauen gainetik, goi Kretazeoko materialak azaltzen dira Flysch buztintsu eta kalkareoa delarik.

Campaniense garaitik hiato sedimentario handi bat azaltzen da kuaternarioko materialetan amaten dena.

Kuaternarioko materialak alubioiak eta kolubioiak osatzen dituzte nagusiki.

Tektonika:

Tektonikoki zonalde hau oso konplexua da. Zonalde honetan bi ziklo sedimentario nagusi eta bi orogenia eman direlako. Gainera, indarren aurrean era ezberdinetan eboluzionatutako materialak, intrusio magmatiko baten existentzia, sektore batzuetan emandako diapirismoa... faktore guzti hauek zonaldeko tektonika konplikatzen dute.

IBILBIDEA:

1. Geldialdia: Irteeraren lehenengo geldialdia Arritxulo aterpean egingo da. Bertan, ikasleei inguruko geologiaz sarrera bat egingo zaie eta bertan gaudelarik eta mapa topografikoak eskuan dituztelarik, ikasleek non gauden zehaztu beharko dute. Ikasleei gogoratuko diegu dena koadernoan apuntatu behar dutela. Bertan, proposatutako galderari erantzuteko denbora utziko diegu ikasleei.

Hauek izango dira ikasleei proposatutako zaizkien galderak:

- Nolakoa da ingurune orografia?
- Zer arroka motek osatzen dute?
- Nolakoa da hauen forma?
- Zergatik erakusten dute egitura edota forma zehatz hori?
- Zer kanpo eragile nagusik parte hartu du gaur eguneko orografia emanez?

2. Geldialdia: Hau egin ostean, Arditurriko minara jertziko gara. Berririo eskatuko zaie ikasleei non gauden mapan apuntatzeko eta behin hau eginda Bisita gidatu bat burutuko da minen galerietatik zehar. Ateratzerakoa, inguruan

topatuko ditugun arroken eta mineralen azterketa egingo da. Ikasleak gai izan behar dira arroka klasifikatzeko eta ezaugarri garrantzitsuenak ikusteko. Ikasleei denbora emango zaie galderak erantzun eta beharrezko informazioa eskuratzeko.

Hauek izango dira ikasleei proposatuko zaizkien galderak:

- Ze arroka mota aztertu dituzu?
- Ze mineral mota aztertu dituzu?
- Nola sortu zirela uste duzu?
- Zergatik izan dira ustiatuak mineral hauek historian zehar?
- Zer ustiatzen zen nagusiki?


